Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko abuztuaren 8a, osteguna — 150 — Jueves, a 8 de agosto de 2019

BESTE BATZUK | 7 | OTROS

## TOLOSALDEA GARATZEN SA.

*Tokiko enplegu proiektuak aurrera eramateko laguntzen deialdia, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 2019/03/ 25ean argitaratutako enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko diru-laguntzen 2019ko otsailaren 28ko deialdiaren anparoan.*

1. *Araudi erregulatzailea.*

— Lanbide-EEZko Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 2019ko otsailaren 28koa, Enplegua Sustatzeko Toki-Ekintzetarako Diru-laguntzen gainean (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 2019/03/25).

— Lanbide-EEZko Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 2019ko uztailaren 9koa, non, Tolosaldea Garatzen SA-ri Enplegua Sustatzeko Toki-Ekintzetarako Diru-laguntzen deialdiaren babesean diru laguntza ematen zaion.

— Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa (*Estatuko Aldizkari Ofiziala* 2003/11/18), eta 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Diru-laguntzen gaineko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (*Estatuko Aldizkari Ofiziala* 2006/07/25), beti era DLO-an agertzen diren kudeaketa printzipioei bakarrik lotuta eta informaziorena, 20. Artikuluan aipatzen dena, 3.2 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuaz, bere aplikazioa finkatzen duena.

— Beste kasutan, DLO eta DLOR, aplikagarriak izango dira bakarrik, Oinarri hauek aipatzen dituztenean.

2. *Deialdiaren helburua.*

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan (EEZ) inskribatuta dauden 43 langabetu kontratatzeko erraztasunak ematea Tolosaldea eskualdeko enpresei.

Honela banatuko dira kontratuak:

Mota 2: 40 kontratu.

Mota 3: 3 kontratu.

3. *Aurrekontu erabilgarritasuna.*

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko diru-laguntzen deialdiari buruzko 2019ko uztailaren 9ko ebazpenean emandako diru-laguntzatik dator.

4. *Laguntzaren zenbatekoa.*

Ikus 2 eranskina kontratuen ezaugarriekin eta gordetako zenbatekoekin.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen % 75 baino handiagoak.

5. *Erakunde onuradunak eta beren betebeharrak.*

Erakunde onuradunek honako betebehar hauek bete beharko dituzte:

## TOLOSALDEA GARATZEN SA.

*Convocatoria de ayudas para la realización de proyectos locales de empleo al amparo de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo 28 de febrero de 2019 publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 25/03/2019.*

1. *Normativa reguladora.*

— Resolución del Director General de Lanbide-SVE de 28 de febrero de 2019 sobre Ayudas para Acciones Locales de Promoción del Empleo (*Boletín Oficial del País Vasco* 25/03/2019).

— Resolución del Director General de Lanbide -Servicio Vasco de Empleo de 9 de julio de 2019 por la que se concede una subvención a favor de Tolosaldea Garatzen SA, al amparo de la convocatoria de ayudas para Acciones Locales de Promoción de Empleo.

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18/11/03), y Real Decreto 887/2006, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 25/07/06), si bien exclusivamente en cuanto a los principios de gestión contenidos en la LGS y los de información a que se hace referencia en su artículo 20, todo ello en virtud del artículo 3.2 párrafo segundo de la misma, que determina dicha aplicación.

— En otro caso, los referidos LGS y RLGS sólo serán de aplicación en cuanto las presentes Bases realicen remisiones expresas a dichos textos legales.

2. *Objeto de la convocatoria.*

Facilitar la contratación de 43 personas desempleadas e inscritas como demandantes de empleo en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (SVE), por parte de las empresas de la comarca de Tolosaldea.

Se dividirán de la siguiente manera:

Tipo 2: 40 contratos.

Tipo 3: 3 contratos.

3. *Disponibilidad presupuestaria.*

Las ayudas previstas en la presente convocatoria se financiarán con cargo a la subvención concedida por Lanbide - SVE, resolución de 9 de julio de 2019 de la convocatoria de Ayudas para Acciones Locales de Promoción de Empleo 2019.

4. *Cuantía de la ayuda.*

Ver anexo 2 con las características de los contratos e importe asignado.

La cuantía final de la ayuda a percibir por la empresa no podrá superar el 75 % de los costes salariales y de seguridad social de las personas contratadas.

5. *Entidades beneficiarias y sus obligaciones.*

Los requisitos a cumplir por las entidades beneficiarias son los siguientes:

EK\CV GAO-I-2019-05232

— Dagokion tokiko erakundearen lurralde-esparruan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak hartuko dira tokiko enpresatzat.

— Zigor larri irmorik ez izatea aukera-berdintasuneko arloan.

— Indarrean dauden legeria eta laneko arautegiak zein laneko arriskuen prebentziokoak betetzea.

— Eskabideko lan-baldintzak eta soldatak bermatzea, bat etorrita bete beharreko lanpostuari dagokion lanbide-kategoriarekin, aplikatu beharreko sektoreko edo enpresako hitzarmenaren arabera.

— Bermatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko eginbeharrak betetzen direla.

— Berehala jakinaraztea Tolosaldea Garatzen SAri dirulaguntzaren xedeari eragiten dion edozein aldaketa edo gorabehera. Era berean, Tolosaldea Garatzen SAri ematea segimendu eta kontrol egokia egiteko laguntzaren esleipenaren inguruan eskatzen dituen datu edo informazio guztiak.

*6. Eskakizunak eta kontratazio-mota.*

Kontratazioek honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

— Enpresa bakoitzak gehienez 5 kontratazioetarako laguntza eskatu ahal izango du.

— Diruz lagundutako epea gehienez, 6 hileko kontratazioa izango da, eta deialdiaren eremuaren barruan egon behar du.

Kontratu guztiak sinatuta egon behar dute 2019ko abenduak 31rako, egun hau barne.

— Kontratuek lanaldi osokoak izan behar dute.

— Kontratazioak egingo dira langabetuekin, baldin eta kontratazioko unean badaude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa inskribatuta eta 2019ko martxoaren 25ean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan erroldatuta, lehentasunezkoa delarik Tolosaldea eskualdeko udalerri batean egotea.

— Kontratazio-multzoak bermatu behar du emakumeen kontratazioa, zeina gutxienez programako kontratazio guztien % 40 izango den.

— Ez izatea ahaidetasun-harremanik enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duten, edo zuzendaritzako edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideen ezkontidearekin, oinordekoarekin eta gainerako senideekin, odol- edo ezkontza ahaidetasuneko bigarren mailaraino, hura barne. Hori egiaztatzeko enpresak erantzukizunezko adierazpen bat aurkeztu behar du (I. eranskina).

— Aurreko deialdietan lan-harremanik eduki ez izana kontratu egiten duen enpresarekin edo tokiko entitatearekin.

— Kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, lagunduko den kontratuaren xede den pertsona lanean hasi aurre-aurreko 3 hiletan enpresak batez beste duen langile kopuruaren gainean.

Halaber, 2 eta 3. motako kontratuek bete beharko dituzte LanbideEuskal Enplegu Zerbitzu ko Zuzendari Nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko deialdiaren 6.2 eta 6.3 ataletan ezarritako baldintzak. Deialdi hori 2019ko martxoaren 25eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratu zen.

*7. Aurkezteko tokia eta epea.*

Aurkezteko tokia:

Tolosaldea Garatzeneko bulegoan. Lehiberri Zentroan, Apattaerreka industriagunean. 20400 Tolosa, Gipuzkoa.

Aurkezteko epea 2019ko irailaren 25an, arratsaldeko 14:00etan amaituko da.

— Tendrán la consideración de empresas locales las personas físicas o jurídicas de naturaleza privada, con centro de trabajo y actividad económica en la comarca de Tolosaldea.

— No hayan sido sancionadas con carácter firme por infracción grave en materia de igualdad de oportunidades.

— El cumplimiento de la legislación y normativas laborales y de prevención de riesgos laborales vigentes.

— Garantizar las condiciones laborales y retribuciones salariales de la solicitud, de acuerdo a la categoría profesional del puesto a cubrir, según el convenio sectorial o de empresa de aplicación.

— Garantizar el cumplimiento de las obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres.

— Comunicar de forma inmediata al Tolosaldea Garatzen SA cualquier modificación o incidencia que afecte al objeto de la ayuda. Asimismo, facilitar cuantos datos e información le sean requeridos por Tolosaldea Garatzen SA con relación a la concesión de la ayuda, para un correcto seguimiento y control.

*6. Requisitos y tipo de contratación.*

Las contrataciones deberán tener las siguientes características:

— Cada empresa beneficiaria podrá solicitar ayuda para un máximo de cinco contratos.

— El periodo máximo subvencionable es de 6 meses de contratación y deberá estar comprendido en el ámbito de la convocatoria.

Todos los contratos tienen que estar firmados para el 31 de diciembre de 2019, inclusive el 31.

— Los contratos deben ser a jornada completa.

— Las contrataciones se realizarán con personas desempleadas inscritas como demandante de empleo en Lanbide – SVE, en el momento de la contratación y estén empadronadas en la comunidad autónoma del País Vasco, preferentemente en los municipios de la comarca de Tolosaldea, a fecha de 25 de marzo de 2019.

— El conjunto de las contrataciones deberá garantizar la contratación de mujeres que como mínimo será del 40 % de todas las contrataciones del programa.

— No tener relación de parentesco con el cónyuge, descendiente y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración. Se acreditará con declaración responsable por parte de la empresa (anexo I).

— No haber mantenido relación laboral con la empresa o entidad local contratante a través de las convocatorias anteriores.

— Garantizar la creación neta de empleo sobre la plantilla media total existente en la empresa en los 3 meses inmediatamente anteriores a la incorporación de las personas cuyo contrato se ayude.

Asimismo, los contratos de tipo 2 y 3 deberán cumplir los requisitos de colectivos establecidos en el apartado 6.2 y 6.3 previstos en la convocatoria de 28 de febrero de 2019 del Director General de Lanbide Servicio Vasco de Empleo y publicada en el *Boletín Oficial del País Vasco* el 25 de marzo de 2019.

*7. Lugar y plazo de presentación.*

Lugar de presentación:

En la oficina de Tolosaldea Garatzen. En el Centro Lehiberri. Apattaerreka Industriagunea, 20400, Tolosa, Gipuzkoa.

El plazo de presentación finalizará el 25 de septiembre de 2019 a las 14:00 de la tarde.

EK\CV GAO-I-2019-05232

Aurrekontu-krediturik egonez gero, onartu ahal izango dira data hori pasa ondoren baina urte barruan aurkeztutako eskabideak eta kreditu hori agortu arte.

Behin eskabideak hartzeko epea bukatuta, Tolosaldea Garatzen SAk emango du eskatutako emakidari dagokion ebazpena.

Kontratu guztiek sinatuta egon behar dute 2019ko abenduaren 31rako, hau barne.

*8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

8.1. Enpresak:

a) Kontratazioa egin aurretik.

— Bankuko kontuaren zenbakiko titularitate agiria.

— Bere zerga-betebeharrak (diru-laguntzak) egunean dituelako ziurtagiria (Ogasuna).

— Enpresak Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

— Kontratazio-kostuen aurreikuspena.

— Bikain/Bai Euskarari ziurtagiria (baldin badauka).

Kontratazioa egin eta, gehienez, 7 eguneko epean:

— Langilearen GZko alta-agiriak.

— Kontratuaren zein Lanbideri egindako jakinarazpenaren 2na kopia.

— Alta egoeran dauden batez besteko langile kopuruaren bi txosten (GZko RED sistema), enpresak Euskal Erkidego Autonomoan dituen lantegi guztiena: Bata, kontratatutako pertsonak enpresan alta izandako egunaren aurreko hiru hilabeteko aldiari dagokiona; bestea, kontratazio-egunari dagokiona.

— Lan bizitzaren txostena (kontratazio eguneko kotizazio kontuko kotizazio-kode bera).

b) Kontratazioa bukatutakoan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du 35 eguneko epean:

— Nominen eta ordainketa-frogagiriaren kopiak.

— Bajen kopiak (G.Z.).

— Gizarte Segurantzari egindako kotizazioaren buletinaren kopiak (TC1 eta TC2), hilabete guztietakoak, eta ordainketa frogagiriak.

— Bere zerga-betebeharrak (diru-laguntzak) egunean dituelako ziurtagiria (Ogasuna).

— Gizarte Segurantza ko Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, enpresak erakunde horrekiko betebeharrak egunean dauzkala egiaztatzen duena.

— Kontratazioko soldaten kostuen ziurtagiria (sinadura eta zigilua).

— Kontratatutako pertsonaren ebaluazio-fitxa.

8.2. Langabetuek:

— Errolda-ziurtagiria.

— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiri bat, azalduz langabezian dagoela eta izena emateko aldiak.

— NANaren kopia.

*9. Diru-laguntzak emateko prozedura eta baloratzeko irizpideak.*

Laguntzak lehiaketa bidez emango dira, ondorengo puntuetan ezarritako prozedura eta balorazio-irizpideak aplikatuta, aurrekontu-zuzkidura eta 2. puntuan ezarritako laguntza programako kontratazio-kopuru osoa agortu arte.

En caso de existencia de crédito presupuestario, se podrán admitir las solicitudes presentadas con posterioridad a esta fecha dentro del año en curso y hasta el agotamiento de dicho crédito.

Una vez finalizado el plazo de recepción de solicitudes, Tolosaldea Garatzen SA dictará la resolución correspondiente, relativa a la concesión solicitada.

Todos los contratos tienen que estar firmados para el 31 de diciembre de 2019, inclusive el 31.

*8. Documentación a aportar.*

8.1. Por parte de las empresas:

a) Previa a la contratación.

— Certificado de titularidad de la cuenta bancaria.

— Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias (subvenciones) (Hacienda).

— Certificado que acredite que la Empresa se encuentra al corriente de pagos (S.S.).

— Previsión de costes de contratación.

— Certificado Bikain/Bai Euskarari, si lo tuviera.

En el plazo máximo de 7 días desde la contratación:

— Partes de alta del/la trabajador/ra en la S.S.

— 2 copias del contrato y de la comunicación a Lanbide.

— 2 informes de «Plantilla media de trabajadores en situación de alta» (S.S. Sist. RED) de todos los centros de trabajo de la empresa radicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi: Uno de ellos correspondiente a los tres meses anteriores al día de alta en la empresa de las personas contratadas y el otro, correspondiente al día de la contratación.

— Informe de vida laboral (mismo código de cuenta de cotización del día de la contratación).

b) Una vez finalizado el contrato en el plazo de 35 días deberá presentar la siguiente documentación:

— Copia de las Nóminas y justificante de pagos.

— Copia de las bajas (S.S.).

— Copias de los boletines de cotización a la S.S. (TC1 y TC2) de todos los meses y justificante de pagos.

— Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias (subvenciones) (Hacienda).

— Certificado actualizado de la tesorería general de la Seguridad Social que acredite que la empresa se encuentre al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la referida entidad.

— Certificado de costes salariales de la contratación (firma y sello).

— Ficha de evaluación del contratado.

8.2. Por parte de las personas desempleadas:

— Certificado de empadronamiento.

— Certificado de Lanbide-SVE en donde aparezca estar en desempleo y los periodos de inscripción.

— Copia del DNI.

*9. Procedimiento y criterios de valoraciones para otorgar las ayudas.*

Las ayudas se concederán mediante concurso, mediante la aplicación del procedimiento y de los criterios de valoración establecidos en los siguientes puntos, hasta agotar la dotación presupuestaria y el número de contrataciones total del programa de ayudas establecido en el punto 2.

EK\CV GAO-I-2019-05232

Kanpoan utziko dira deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.

Eskabideak baloratzeko irizpideak:

Alderaketa honako irizpide hauen arabera egingo da:

— Lehiberri Forora edo Tolosa Gourmet club-era atxikitutako enpresak: puntu 1.

— Kontratuak 6 hilabete baino gehiagoko iraupena badu: puntu 1.

— 55 urtetik gorako pertsona bat kontratatze agatik: puntu 1.

— Emakumeak kontratatzeagatik: 2 puntu.

— Eskualdeko langabetuak kontratatzeagatik: puntu 1.

— Hazilan eta Lortzen programetan parte hartu duen pertsona bat kontratatze agatik: puntu 1.

— Bikain edo Bai Euskarari euskararen kalitate-ziurtagiria: puntu 1.

— 2018ko enplegu planaren bitartez pertsona bati lan kontratu mugagabea egiteagatik: puntu 1.

— Hautaketa prozesua 2019ko Enplegune jardunaldietan egiten dutenak: puntu 1.

*10. Akatsen zuzenketa.*

Laguntzaren eskaerak ez baditu deialdi honetan exijitutako baldintzak betetzen, edo ez badauka exijitutako dokumentazioa erantsita, interesdunari errekerimendua egingo zaio 10 lan eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela eta eskabidea artxibatu egingo dela beste tramiterik gabe.

*11. Laguntzaren ordainketa eta dokumentazio justifikatzailea.*

Lehenbiziko ordainketa, % 55, 8.1a eta 8.2 puntuetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren burutuko da.

Laguntzaren % 45, 8.1b puntuan aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Bi zatien ordainketak, beti ere Tolosaldea Garatzenek Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren ordainketak jaso ondoren egingo dira.

*12. Prozedura instruitzeko eta ebazteko organo eskuduna.*

— Balorazio-mahia:

Tolosaldea Garatzeneko balorazio mahaia izango da laguntza hauek emateko prozedura izapidetuko duena. Osatutako espedienteak aztertu eta ebaluatu ondoren zehaztuko da burututako ebaluazioaren emaitza jasoko duten txostenak prestatuko ditu.

Txosten horiek erabakiko dute zein diren laguntza jasoko duten pertsonak edo enpresak, bai eta horietako bakoitzari emango zaion laguntzaren kopurua.

Balorazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute:

— Tolosaldea Garatzeneko gerentea.

— Tolosaldea Garatzeneko enplegu saileko arduraduna.

— Tolosaldea Garatzeneko enpresa saileko arduraduna.

Balorazio-mahaiaren funtzioa izango da aurkeztutako eskabideak deialdi honen arabera baloratzea eta diru-laguntzak emateko proposamena egitea. Horretaz gain, justifikazio-proposamenen gaineko txostena ere egingo du.

Serán excluidas las solicitudes que no cumplan los requisitos establecidos en esta convocatoria.

Criterios de valoración de solicitudes:

La baremación se realizará de conformidad con los siguientes criterios:

— Las empresas adheridas al Foro Lehiberri o al Club Tolosa Gourmet: 1 punto.

— Por duración del contrato superior a 6 meses: 1 punto.

— Por contratar una persona mayor de 55 años: 1 punto.

— Por contratación de mujeres: 2 puntos.

— Por contratación de personas desempleadas de la comarca: 1 punto.

— Por contratar a una persona que haya participado en el programa Hazilan y Lortzen: 1 punto.

— Certificado de Calidad en la gestión lingüística Bikain o Bai Euskarari: 1 punto.

— Las empresas que hayan contratado de forma indefinida a alguna persona trabajadora dentro del plan de empleo 2018: 1 punto.

— Las empresas que realicen el proceso de selección dentro de las jornadas Enplegune 2019: 1 punto.

*10. Subsanación de deficiencias.*

Si la solicitud de la ayuda no reúne los requisitos exigidos en la presente convocatoria, o no se acompañará a la misma la documentación exigida, se requerirá a las personas interesadas para que, en un plazo de 10 días hábiles, subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que si no lo hicieran, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose sin más trámites.

*11. Abono de la ayuda y documentación justificativa.*

Un primer pago del 55 % tras la presentación de la documentación referida en el punto 8.1a y 8.2.

Un 45 % de la ayuda tras la presentación de la documentación referida en el punto 8.1b.

El pago de las dos partes, se realizará siempre y cuando Tolosaldea Garatzen haya recibido los correspondientes abonos de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (SVE).

*12. Órgano competente para la instrucción y resolución del procedimiento.*

— Mesa de valoración:

La instrucción de procedimiento de concesión de estas ayudas corresponderá a la mesa de valoración que tras la evaluación y examen de los expedientes completados emitirá informes en los que se concreten el resultado de la evaluación efectuada.

Dichos informes determinaran las personas o empresas subvencionadas, así como el importe de la ayuda a cada uno de ellos.

La mesa de valoración estará integrada por los siguientes miembros:

— Gerente de Tolosaldea Garatzen.

— Responsable del área de empleo de Tolosadea Garatzen.

— Responsable del área de empresas de Tolosaldea Garatzen.

La función de la mesa de valoración consistirá en la valoración de las solicitudes presentadas de acuerdo a la presente convocatoria y en la elaboración de la propuesta de concesión de ayudas. Así mismo, elaborara el correspondiente informe de propuesta de justificaciones.

EK\CV GAO-I-2019-05232

Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluak ebatziko ditu eskabideak, behin horretarako osatu den balorazio-mahaiak baloratuz gero.

*13. Beste laguntza batzuekin bat etortzea.*

Deialdi honetako 2. eta 3. motetako laguntzak ezin izango dira bateratu kontzeptu eta helburu berberetarako emandako beste edozein motatako diru-laguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.

*14. Ez-betetzeak.*

Baldin-eta baldintzaren bat, edozein dela ere, enpresaren edo enpresa horrek kontratatutakoaren erruz betetzen ez bada eta ez-betetze horrek berekin emandako laguntzaren murrizketa bat badakar, diru-laguntzaren jasotzaileari jasanaraziko zaio behar den murrizketarekin eta haren proportzioan.

*15. Izaera pertsonaleko datuak babestea.*

Laguntzaren eskabidea aurkeztuta, erakunde eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdiaren zehaztapen guzti-guztiak onartzen dituela.

Era berean, adierazten du ezen eskabide-orrian azaltzen diren Datu Pertsonal guztiak bere baimenarekin jaso direla eta onartzen duela datu horiei informatika-trataera bat ematea eta baimena ematen duela datu horiek bakar-bakarrik udal-kudeaketarako erabiltzea, eta datuok utzi edo jakinarazi dakizkiela beste Administrazio Publikoei eta beren Erakundeei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako kasuetan, 6. 1 e. artikuluan jasotakoarekin bat etorrita.

*Azken xedapena.*

Laguntza-deialdi honetan espresuki jaso ez den guztietarako, ebazpen honetan xedatutakoari erabaki honi jarraitu behar zaio: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu ko Zuzendari Nagusiaren ebazpena, zeinaren bidez argitara eman baitzen Enplegua. Sustatzeko Toki Ekintzetarako deialdia (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* 2019ko martxoaren 25ean argitaratua).

Tolosa, 2019ko uztailaren 24a.—Olatz Peon Ormazabal, lehendakaria. (5232)

ERANSKINA I

*Enpresaren zinpeko aitorpena*

Izena edo arrazoi soziala:

Enpresaren ordezkariaren izena:

Enpresaren ordezkariaren NANa:

AITORTZEN DUT

2019ko otsailaren 28ko Enplegua Sustatzeko Toki-ekintzetarako diru-laguntzen bidez (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* 2019/03/25) kontratatutako pertsonak ez daukala inolako ahaidetasun-harremanik enpresariarekin, enpresa kontrola dutenekin, zuzendaritza karguak dauzkatenekin edo Administrazio Kontseiluaren partaide direnen bikotekidearekin, ondorengoekin ezta 2. mailarainoko odolkidetasun-harremana duen inorekin.

Data eta sinadura.

El Consejo de Administración de Tolosaldea Garatzen procederá a resolver las solicitudes, una vez valoradas por la mesa de valoración constituida al efecto.

*13. Concurrencia con otras ayudas.*

Las ayudas de tipo 2 y 3 de la presente convocatoria serán incompatibles con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda que por el mismo concepto o finalidad le sean otorgadas, excepto las bonificaciones otorgadas por la seguridad social.

*14. Incumplimientos.*

El incumplimiento de cualquier requisito, imputable a la empresa o a la empresa contratada por esta, y que suponga una disminución de la ayuda concedida, será repercutida al perceptor de la ayuda con la disminución consiguiente y de manera proporcional de la misma.

*15. Protección de datos de carácter personal.*

Con la presentación de la solicitud de ayuda, la entidad solicitante da su conformidad y declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente todos los términos de la misma.

Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta, que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado y que autoriza a que el uso de dichos datos se restringa exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas y sus Organismos en los supuestos previstos en el Reglamento General de Protección de Datos personales, UE 2016/679, de 27 de abril de 2016, de acuerdo con lo recogido en el artículo 6.1 e.

*Disposición final.*

En todo lo no recogido expresamente en la presente convocatoria de ayudas, se estará a lo dispuesto en la resolución del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se aprobó la convocatoria de subvenciones para Acciones Locales de Promoción de Empleo (publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de 25 de marzo de 2019).

Tolosa, a 24 de julio de 2019.—La presidenta, Olatz Peon Ormazabal. (5232)

ANEXO I

*Declaración responsable por parte de la empresa*

Nombre o razón social:

Nombre del representante de la empresa:

N.º DNI del representante de la empresa:

DECLARO

Que la persona contratada mediante las ayudas para acciones locales de empleo de 28 de febrero de 2019 publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* de 25/03/2019 no tiene relación de parentesco con el cónyuge, descendiente y demás parientes que tengan relación de parentesco por consanguinidad o afinidad hasta segundo grado inclusive, con la persona empresaria o con quienes tengan el control empresarial, ostenten cargos de dirección o, en su caso, sean miembros del Consejo de Administración.

Fecha y firma.

EK\CV GAO-I-2019-05232

2 ERANSKINA / ANEXO 2

KONTRATUEN EZAUGARRIAK ETA GORDETAKO KOPURUA
CARACTERÍSTICAS DE LOS CONTRATOS E IMPORTE ASIGNADO

2. MOTA / TIPO 2

| *Kontratu kopurua / N.º contratos* | *% Lanaldia / % Jornada* | *Iraupena / Duración* | *Gordetako laguntza / Ayuda asignada* |
|---|---|---|---|
| 39 | 100 % | 6 hilabete / 6 meses | 234.000 € |
| 1 | 100 % | 6 hilabete / 6 meses | 5.000 € |

3. MOTA / TIPO 3

| *Kontratu kopurua / N.º contratos* | *% Lanaldia / Jornada* | *Iraupena / Duración* | *Gordetako laguntza / Ayuda asignada* |
|---|---|---|---|
| 3 | 100 % | 6 hilabete / 6 meses | 18.000 € |

EK\CV GAO-I-2019-05232